

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko azaroaren 6tik 10erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZERBITZUEN PMIak

Datuaren analisia

Espainia, Italia, Frantzia, Alemania eta Eurogune osoko Zerbitzuen PMIak argitaratu ziren. Espainia (54,6), Alemania (54,7) eta Italiako (52,1) datuek okerrera egin zuten aurreko datuekin alderatuta. Frantziakoak (57,3) aldiz, hobera egin zuen, aurreikuspenak baino okerragoa izan bazen ere. Bestalde, Euroguneko datu metatuak (55) ere behera egin zuen aurreko hileko datuarekin alderatuta, nahiz eta aurreikuspenak baino hamarren batzuk hobea izan zen. Edonola ere, denak ala denak maila oso altuetan daude. Horrek erakusten du, enpresarien arabera, datozen hiletan haien jardueraren bilakaera positiboa izango dela.


Adierazlearen azalpena

Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du Zerbitzuen PMIak, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale. Zerbitzuen sektorea euroguneko BPGd osoaren bi heren denez, zerbitzuen PMIa egoera ekonomikoaren adierazle nabarmen bat da.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Industria-ekoizpenaren datua espero zena baino gehiago hazi da Frantzian eta Espainian, eta okerragoa izan da Alemanian eta Italian. Frantzian urte arteko % 3,2raino igo zen, kalkulaturakoa baino hamarren bat gehiago, % 0,6ko igoerarekin irailen. Espainian, urte arteko datuak ere gora egin zuen, % 3,4raino, espero zen % 3,1etik gora, % 0,1eko igoerarekin hil honetan. Alemanian, urte arteko tasa % 3,6raino jaitsi zen, % 4,5 espero zen bitartean, behin aurreko datua, % 4,6, hamarren bat behera berrikusi ondoren. Hileko datuak, hortaz, -% 1,55 egin zuen atzera. Azkenik, Italiako datua % 2,4ra jaitsi zen, % 4,8 espero zen bitartean, eta irailen, hortaz, -% 1,3ko jaitsiera izan zuen. Datu nahiko hegazkorak dira, 2013tik hobekuntza-joera baten erakusgarri direnak.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegi erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

MICHIGANEKO UN.

Datuaren analisia

Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen sentimenduaren azaroko atariko adierazleak pixka bat behera egin du, nahiz eta oraindik maila altuetan dagoen. Urriko 100,7tik 97,8ra jaitsi da, 100,8 zenean esperotako datua. Aukeren osagaiak okerrera egin zuen, 87,6raino, 91ko datua espero bazen ere. Azkenik, oraingo egoeraren osagaia ere 113,6raino jaitsi zen, eta aurreikuspena 116,3koa zen. Hobetzeko joerari eta konfiantza-maila altuari eutsi dio, enpleguaren bilakaera onari eta aberastasunaren eraginari esker.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikuspena
11/13	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 3.1
11/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.5
11/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.2
11/14	Alemania	Urte arteko BPGd NSA	% 2.0
11/14	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.6
11/14	Espainia	Urte arteko KPIa	--
11/14	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 3.2
11/14	Eurogunea	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 3.3
11/14	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	88.0
11/14	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
11/14	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	18.1
11/14	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 2.5
11/15	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.4
11/15	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
11/15	Frantzia	Urte arteko KPIa	--
11/15	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.3
11/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
11/15	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/15	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.1
11/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	24.9
11/16	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	--
11/16	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.4
11/16	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
11/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.4
11/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 5.4
11/17	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Jaitsiera orokorren astea munduko burtsa nagusietan, pixka bat handiagoak Europan AEBetan baino. Aste honetan erreferentzia makroekonomiko garrantzitsu gutxi egon dira, eta enpresen emaitzen aurkezpen oparoa izan da indizeei gehien eragin diena, eragin nabarmena izan zuena sektorean. Europan, jaitsiera handienak automozioaren sektorekoak izan dira, gehien kutsatzen duten autoak zigortzeko eta elektrikoak sustatzeko neurri berriak iragarri ondoren. Europako Batzordeak urte honetarako eta hurrengorako EDBren hazkunde-aukerak gorantz berrikusi izana ere oso albiste esanguratsua izan zen, nahiz eta ez zuen eraginik izan errenta aldakorreko merkatuetan. AEBetan, Kongresuak proposatutako Trumpen planari buruz Senatuan sortutako desadostasunak izan dira gertakari nabarmenena, eta horiek, bai, eragina izan zuten inbertsiogileengan. Eta, azkenik, maila orokorrean, Trumpen Asiako bira nabarmendu behar da. Tentsio politikoak sortzeko beldurrak areagotu ziren, eta horren ondorioz, aste bukaeran, merkatuen hegazkortasuna handitu egin zen, eta inbertsiogileak balore arriskutsuetatik urundu ziren. Azkenik, Asian Nikkeia jaitsieretatik libratu zen, eta gorakorrek, oro har, atzera egin zuten pixka bat.

ERRENTA FINKOA:

Europan, salmentak izan ziren nagusi asteko bigarren erdian, batez ere periferian, prezioen jaitsierekin eta tasen gorakadekin tarte guztietan. Espainiako arrisku-primak 5 op egin zuen gora astearen amaieran, 117 op-raino. AEBetan ere eman ziren salmentak, Senatutik zetozen albisteen eta zerga-erreformari jarritako traben eraginez, eta errentagarritasunek gora egin zuten. Kredituak, bestalde, okerrera egin zuen eta diferentzialak handitu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuan, euroak indarra irabazi zuen dolarraren aldean, EBk egindako berrikuspen positiboek bultzatuta. Gainera, dolarrak indarra galdu zuen Senatuko albisteen ondorioz, eta truke-tasak 1,1664\$/€ balioarekin amaitu zuen astea. Lehengaietan, petrolio gordinaren prezioak +% 2,37 egin zuen gora, eta astearen hasieran izandako igoera handiak nabarmendu behar dira, Saudi Arabian ustelkeriaren aurka egindako garbiketaren ondoren. Azkenik, urreak balioa irabazi zuen eta 1.275\$/ontza mailaraino heldu zen.

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.